

**Las viejas canciones que nos unen / Elkartzen gaituzten abesti zaharrak**  
PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Erroibarko ELUTSEDER eta Aurizko GARAITZEKO ASI elkarteek lerro hauetan aurkezten dugu gure proiektua: “**Las viejas canciones que nos unen / Elkartzen gaituzten abesti zaharrak**”. Proiektuak Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du, 2022an Pirinioetako Planaren lurralde-eremuan jarduerak egiten dituzten elkarteentzako diru-laguntzen bidez baita Euskarabidearen diru-laguntzen bidez ere.

Proiektuaren bidez Erroibarko eta Aurizko euskarazko musika-ondare baliotsua erakutsi nahi dugu, musika bi udalerrietako zeharkako ardatz bateratzaile gisa sustatu, eta *Kantuzaharrak* eta *Aurizko Ingurutxo*a jatorrizko lurraldean transmititu eta berreskuratzea.

Gainera, leiho bat ireki nahi diegu, oro har, arteari, eta, bereziki, tokiko artistei, eta proposatu nahi diegu proiektuko ekintzak aurkezteko obra originalen bidez parte hartzea, ondoren obra guztiekin erakusketa bat osatzeko.

Hartara, lau jarduera mota prestatu dugu:

Gure kantuzaharrak ezagutarazteko hiru **kontzertu** programatu ditugu, horien ikuspegi musikal ezberdinak ematen dizkigutenak: uztailean kontzertu bat boskote batekin, Bost Ensemble, hari-jotzaileak eta sopranoa, irailean euskal kantu herrikoia *Bankako Menditarrak* taldearekin eta urrian *Orreaga eta Auzperri* abesbatzek batera eskainiko duten kontzertua.

Erroibartarrak eta auriztarrak Kantuzaharretara eta Ingurutxora hurbildu eta horiek ikas ditzagun, hiru **tailer** prestatu ditugu: *Kantuz*, apiriletik ekainera bitartean, txikienentzat; helduentzako *Kantuz* (14 urtetik 100era) abuztuan eta irailean; eta *Auritzeko Ingurutxo*a ikasteko tailerra, uztailean.

Tailerrei bukaera emateko, **bi jai**- eta topaketa-ekitaldi eskainiko dira. Lehenengoa uztailaren 24an izango da, bertan *Ingurutxo*a dantzatuko da eta ikasitakoa erakutsiko da berriki berreskuratutako Aurizberriko Ingurutxoarekin batera. Bigarrena irailaren 24an izango da, *Kantu Eguna* ospatuz, egun horretan erroibartarrak eta auriztarrak elkartzen gaituzten kantu zahar horiek abestuko ditugu.

Azkenik, irailaren 24an eta 25ean, **erakusketa** batean erakutsiko ditugu bertako artistek beren ikuspegi artistiko berezitik proiektuko kontzertu, tailer eta jaiak aurkezteko prestatu dituzten lanak.

Jarduera horietan guztietan, Nafarroako Gobernuaz gain, Aurizko Udalak, Aurizberriko kontzejuak eta Aurizberri eta Bizkarreta-Gerendiango parrokiek laguntza ekonomikoa ematen dute. Eskerrik asko guztioi.

ELUTSEDER eta GARAITZEKO ASI zabalik gaude gure helbide elektronikoetan iruzkinak, ekarpenak eta kontsultak jasotzeko:

: [elutseder@gmail.com](mailto:elutseder@gmail.com) y [garaitzekoasi@gmail.com](mailto:garaitzekoasi@gmail.com).



ELUTSEDER



GARAITZEKO ASI

# ELKARTZEN GAITUZTEN ABESTI ZAHARRAK

## LAS VIEJAS CANCIONES QUE NOS UNEN

### DANTZA FESTA FIESTA DE LA DANZA

Aurizko eta Aurizberriko  
INGURUTXOAK  
+OBERENA dantza taldea

Uztaizak 24 de Julio  
Auritz/Burguete

### TALLER INGURUTXO AURITZ/BURGUETE TAILERRA

Uztailak 19, 20, 21 Julio

Auritz/Burguete

### Taller de KANTUZ Tailerra

### ERROIBARKO ETA AURIZKO KANTUZAHARRAK

Abuztuak 5,12,19,26 de Agosto  
Irailak 2 de Septiembre  
Aurizberri/Espinal

### Kontzertua PIRINIOKO OIHARTZUNAK ECOS DEL PIRINEO Concierto

BOST ENSEMBLE

Uztaizak 29 de Julio  
Auritz/Burguete

### KANTU EGUNA

Irailak 24 de Septiembre  
Auritz/Burguete

### Kontzertua Concierto BANKAKO MENDITARRAK

Irailak 10 de Septiembre  
Bizkarreta-Gerendiain

### Kontzertua AUZPERRI ETA ORREAGA ABESBATZAK Concierto

“Elkartzen gaituen musika”  
“La música que nos une”

Urria - Octubre  
Aurizberri/Espinal

### Kartel erakusketa “Elkartzen gaituen musika”

Exposición de carteles  
“La música que nos une”

Irailak 24-25 de Septiembre  
Auritz/Burguete

Antolatzen dute:  
Organizan:



elutseder@gmail.com



garaitzekoasi@gmail.com

Subvenciona Gobierno de Navarra/  
Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernuak

Laguntzen dute/Colaboran:

Concejo de Aurizberri/Espinal

Parroquia de Aurizberri/Espinal

Ayuntamiento de Auritz/Burguete

Parroquia de Bizkarreta-Gerendiain